

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2012ko abenduaren 12a. IX. urtea. 2.449. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hogeita bost urte eta gero Alegiako Gaztetxea bizirik

Hainbat ekitaldi egiten ari dira, eta egun nagusia larunbatean ospatuko dute; «herriko gune garrantzitsua» dela nabarmendu dute **5**

Galder Azkue Amasa-Villabonako alkatea

«Herritarrei biltzen den diruarekin zer egiten den erakustea garrantzitsua da»

Aurrekontu parte hartzaileak egiten ari dira; gaur eta bihar udaletxean egongo dira **4**

TOPAk urteko errepasoa egingo du larunbatean

12:00etan bilduko dira kultur etxeko areto nagusian; Eusko Legebiltzar berriari bi eskaera egin dizkiote **2**

'Compañeras de viaje' dokumentala, gaur, Tolosan

Mundu bat Tolosaldean egitasmoaren barruan ikusi ahal izango da 19:00etatik aurrera, doan **3**



R. CALVO

→ **Gabonetako kanpainak, abian.** Ibarako eta Tolosako merkatarien eta ostalarien elkartek hasi dira jada, Eguberrietako eskaintzekin. Egun hauetan bi herrietako bazkide diren saltokietan erosketak egiten dituztenen artean txartelak banatuko dituzte eta zozketak urtarilaren 8an egingo dituzte. Irudian Ibarako aurkezpena. **6**



Huitzitik Lizartzara txangoa egingo dute igandean, Alpinokoek

Ibilaldia amaitu ondoren, eguerdian bazkaria antolatu dute, Lizartzako Goikoetxea sagardotegian

I. Urkizu Tolosa

Tolosako Alpino Uzturre Elkartek aurtengo azken mendi ibilaldia antolatu du, datorren abenduaren 16rako. Txangoa Huitzi mendatetik Lizartzarainokoa izango da.

Lauzpabost orduko ibilaldia ren ondoren, parte hartzaileek Lizartzako Goikoetxea sagardote-

gian bazkaria izango dute hala nahi izanez gero.

Horrela beraz, igandean, 08:00etan irtengo da autobusa San Frantzisko elizaren paretik; bazkarira soilik joan nahi dutenek, berriz, 13:00ean izango dute hitzordua autobusarekin.

Alpino Uzturreko bazkide direnek, 34 euro ordaindu beharko dute autobusa eta bazkariaren truke; bazkide ez direnek, berriz, 35 euro. Irteeran izena eman nahi dutenek bi bide izango dituzte. Batetik, 943 65 27 89 telefonora deituzko aukera izango da, eta bestalde, alpinouzturre@hotmail.com helbide elektronikora ere idazteko aukera izango da.

Everesterako lehen euskal espedizioaz hitzaldia, gaur, Tolosan

Txomin Uriarte hizketan ariko da, eta diapositibekin nahiz dokumentuekin lagunduko du saioa

Erredakzioa Tolosa

Antxon Bandres Bidaiaien Txokoa, *Tximist*, 1974ko Everest hitzaldia eskainiko du, gaur, 20:00etan, Txomin Uriartek.

Everest mendira egin zen lehen euskal espedizioari buruzko saioa izango da; 1974. urtean, 13 lagunek egin zuten. Diapositibek eta garai hartako dokumentuek lagunduko diote hizlariari.

Txomin Uriarte 1942an jaio zen Bilbon, eta Goi Mendiko Giden Elkarteko kidea zen espedizio honetara joan zenean. Geroztik euskal mendizaletasunarekin harreman handia izan du.

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaz hitzaldia Orixen

DBHko 1. mailatik 3.ra bitarteko gurasoei zuzendutakoa izango da, bihar, euskarazko hitzaldia

Erredakzioa Tolosa

Izan Arregi psikologoak, *Komunikazioa seme-alabekin* izeneko hitzaldia eskainiko du, bihar, Orixen institutuan.

Ikasturtea hasi zenez geroztik, institutua gurasoei begirako formazio saioak antolatzen ari da, eta biharkoa, bereziki, DBHko lehen mailatik hirugarrenera bitarteko ikasleen gurasoei zuzendutakoa da.

Saioa 18:30ean hasi, eta 20:00ak inguruan amaituko da, eta euskaraz izango da, Orixen Institutuko Gorosabeleko liburutegian.

● tolosa@hitza.info



laz ere batzar irekia antolatu zuen TOPAk, herritarrei informazioa emateko helburuz. A. IMAZ

TOPA koordinakundeak urte osoko errepasoa egingo du larunbateko batzarrean

Eusko Legebiltzar berriari bi eskaera helaraziko dizkiote, Tolosaldera eta EAera begira

Itzea Urkizu Tolosa

Pasa den urtean sortu zuten hainbat herritarrek, Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundea, Tolosako espezialitateen anbulatorio publikoa desegiterra zihoala eta. Urte betean egindako aldarrikapen, eskaera eta protestak errepasatuko dituzte, eta gaur egungo egoera baloratu ere bai, larunbat honetan; 12:00etan izango da, Tolosako kultur etxeko areto nagusian.

2011ko azaroan kontzertu ekonomikoaren hitzarmena sinatu zuten, Osakidetza, Asuncion klinikaren kudeaketaz arduratzen den Inviza enpresa pribatuarekin. «Helburua, betidanik ballabide gutxiago izan dituen eskualde honetan, Euskal Herriko gai-

nerako eskualdeetako osasun zerbitzu bera eskaintzea zen», azaldu dute TOPAko kideek: «Gainera, Asuncionek eskualdeko ospital baten moduan funtzionatzea adostu zuten hitzarmenean».

Koordinakundeak, ordea, urtea igaro eta gero, hitzarmenean adostutako zerbitzu berriak ez direla martxan jarri salatu du, eta

Urte betean jasotako 19.000 sinaduren babesa nabarmendu nahi dute

abian direnak «era eskasean funtzionatzen» ari direla.

Besteak beste, 2012rako aurreikusita zeuden etxeko errehabilitazio zerbitzua, eta ortogeriatriarako saila oraindik funtzionatzen ez direla hasi diote TOPAko kideek, eta gisa berean salatu dute, egoitzetako psikogeriatria zerbitzua martxan jarri ez izana.

Bestalde, aurtun abiarazitako

zerbitzuak «baldintza txarretan» eskaintzen ari direla diote: «Larriak baina kronikoak ez diren gaixotasunen unitatea jarri zuten otsailean, baina 65.000 biztanlerentzat 6 gela soilik egin dituzte. Etxeko ospitalizazteetan, berriz, behar baino langile gutxiago ari dira, eta ez dira mediku espezializatuak. Azkenik, koloneko minbi-ziaren screening zerbitzua jarri dute Asuncionen, baina TOPAko kideek argi utzi nahi izan dute, «Euskal Autonomi Erkidego osotan nahitaez jarri beharreko zerbitzua» izan dela.

Legebiltzarrerara begira

TOPAk, alde batetik, eskualdean gaur egun eskaintzen duten osasun zerbitzua, duela urte betekoa baino okerragoa dela dio: «Itxaron zerrendak handitu egin dira, Osasun Sailaren Lurralde Zuzendaritzan etengabeko kexak aurkeztzen ari dira herritarrak, eta Tolosaldeko osasun esparruko langileen baldintzek ere okerrera egin dute».

Honen aurrean, osatu berri den Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eta ordezkari batzordeari, beren aldarrikapenak aitatz hartzea eskatu nahi diete, «19.000 sinaduren babesean». Batetik, Tolosako espezialitateen anbulatorioa mantendu eta bultzatzea nahi dute, eta baita Asuncion klinika eskualdeko ospitale publiko moduan funtzionatzen hastea ere.

Halaber, EAEn izaera unibertsala eta kudeaketa publikoa duen osasun zerbitzua mantentzeko borodate politikoa izatea ere eskatuko diete ordezkariak.

● tolosa@hitza.info

↓ Iragarki laburrak

SALGAI EDO ALOKAIRUAN

Txakurkumeak. Arratoi txakurkumeak saltzen ditut. Interesa duen edonork, dei dezala 618 47 09 86 telefono zenbakira.

Ile apaindegia. Villabonan, ile apaindegia saldu edo alokatu nahi dugu. Interesa duen edonork, 630 09 90 92 telefono zenbakira deitu behar du.

Autoa. Citroen Berlingo XTR

saltzen dugu, 2008. urtekoa. Aukera ezin hobea da. Interesa duen edonork, dei dezala 635 20 30 56 telefono zenbakira.

LAN BILA

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako: etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Danok Danena taldeko pulsulariak bigarren, Euskadiko ligan

Larunbat honetan, Halterofiliako Eguberrietako trofeoko saioa izango da, Zizurkilgo pilotalekuan

I. Urkizu Amasa-Villabona

Pasa den azaroaren 24ean, Danok Danena Halterofiliako Goretti Amonarrirek, Lyam Edelek eta Susana Davilak, bigarren postua lortu zuten, Iruñeko Anaitasun-ean, Euskadiko Kadeteen 4. Ligan.

Gipuzkoaren izenean aritu ziren, eta aipatzekoa da taldea pulsulari bat gutxiagoarekin aritu zela, 2. postua eskuratuz. Aipatzekoa da Goretti Amonarri eta Susana Davila egiten ari diren denboraldia; biek hobetu zituzten azken txapelketan lortutako markak.

Azkenik, larunbat honetan, hilak 15, Zizurkilgo Intxaur Pilotalekuan Eguberrietako Trofeoa ospatuko dute, kirol astearen barruan. Bertan ariko dira, Danok Danena Halterofilia Taldeakoak, Euskal Herriko gainontzeko pulsulariekin batera.



Davila eta Amonarri. HITZA

Bonoez gain 2x1 filmak eskuragarri, bihar

Guztira, hamabi film ikusteko aukera izango da, eta txartelak hilaren 20ra arte izango dira salgai

I. Urkizu Tolosa

Asteburuan hasiko da zine ziklo berria, eta bihurtik aurrera salgai izango dira txartelak. Gainera, urte amaiera dela eta, 2x1 filmak izango dira.

Bihar, 17:00etatik 19:00etara, Leidorreko leihatila zabalduko dute txartelak saltzeko, eta zine saioen aurretik ere eskuragarri izango dira. 12 euroren truke, edozein saioz gozatu ahal izango da, eta 9 euroko bonoarekin, berri,

gaueko saioetara soilik joan ahal izango da.

Honakoak dira, Leidorren eskainiko dituzten filmak: *Cosmópolis*, *La vida de Pi*, *Pura vida*, *Lapequeña Venecia*, *Reality*, *Skyfall*, *Chef*, *La parte de los Angeles*, *Conociendo a Matsuko*, *Las Sesiones*, *El Hobbit* eta *Amanecer 2*.

Aipatzekoa da, zine saioetan bi egun berezi izango direla, eta bi pelikula baten prezioan eskainiko dituztela. Abenduaren 28an, 5 euroren truke, *El Hobbit* eta *Sinister* ikusi ahal izango dira. Urtarrilaren 2an, berri, *Amanecer 2* eta *The host* eskainiko dituzte, film baten prezioan.

2x1 saioetako sarrerek, 3,5 euroko prezioa izango dute gazte txartela dutenentzat, nahiz bonodunentzat.

Latinoamerikako emakume etorkinen bizitzaz ariko da 'Compañeras de viaje'

Mundu bat Tolosaldean egitasmoaren barruan, SOS Arrazakeriak antolatatu du emanaldia, gaur, 19:00etan

Itzea Urkizu Tolosa

Compañeras de viaje izenburupean, latinoamerikako zazpi emakume etorkinen bizitza islatuko du, gaur, 19:00etan, Tolosako kultur etxean eskainiko duten dokumentalak. SOS Arrazakeria taldeak antolatatu du saioa, Mundu bat Tolosaldean egitasmoaren barruan, eta sarrera doakoa izango da.

Zazpi emakume dira protagonistak, eta guztiak ere, Gipuzko-

an bizi dira gaur egun; etxeko lanetan aritzen dira batzuk, eta adineko pertsonak zaintzen bestiek.

Horrela, Oskar Tejedor zuzendari legazpiarrak, emakume hauek euren herrialdetik honaino etortzeko prozesu horretan izandako arazoak helarazteko izan du helburu, lan honetan: «Filme-ko istorioa, funtsean, emakume hauen eta beren familien arteko elkarriketa bat da; urruneko amatasuna, nolabait. Dituzten arazo ekonomikoei aurre egiteko inbertsio modukoa da honaino etortzea, baina bide horretan, ahal duten bezala aurre egiten diote seme-alabak eta eta bikoteak beren herrian utzi izanari», dio Tejedorrek.

Dokumentala egiteko eskaera Bidez Bidez elkarteak egin zion zu-


zendariari, eta helbururik behinena Europaren idealizazioa puskatzea, emigrazioarekin loturiko arazo azalaraztearekin batera.

Aipatzekoa da, dokumentalaren proiektioa amaitu eta gero, eztabaida izango dela, gaztelaniaz. Bertan, etorkinak diren emakume latinoamerikarrez ariko dira: migrazio prozesua nahiz urruneko amatasuna. Halaber, emakume etorkinok gaur egun bizi diren herrialdeetako emakumeen bizimoduarekin alderatu-



■ **Bideoa.** Ikusi 'Compañeras de viaje' dokumentalaren trailerra QR kodea eskaneatuta.

Irudia ◉ Alegia



'BIZILAGUNAK' ERAKUSGAI, ALEGIAN

Pasa den azaroaren 18an, Bizilagunak egitasmoa martxan jarri zuten mundu osoko 18 herrialdetan, eta etorkinen familiak bertako familiekin eseri ziren, mahaiaren bueltan bazkaltzera. Integrazioa eta kulturartekotasuna sustatzeko programa ho-

nen zati da, Mundu bat Tolosaldean egitarauaren barruan, Alegiako kultur etxean, hilaren 21a bitartekoa izango den erakusketa. Hainbat panelak, euskaldun eta etorkinen arteko istorio zehatzak kontatzen dizkiete bertaratuei. I. GARCIA LANDA

LAGUN ARO SAN SEBASTIAN
SPRINTZAK BASKET

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Abenduak 19 • Asteazkena
20:00
Donostiako Iunben

LAGUN ARO GBC
Cai Zaragoza
saskibaloia partida

sarrerak

Zorrikerian parte hartzeko dituzte osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakia.

Asier Imaz Amasa-Villabona

Bilduren hauteskunde kanpainako konpromisoa da parte hartzea bultzatzea. Amasa-Villabonako Udalak, hitzari neurria jarri nahi izan dio, eta aurrekontu parte hartzaileak egin nahian dabil. Galder Azkue (Villabona, 1978) alkateak badaki gaiak zeresana eman duela, batez ere, PSE-EE-ren aldetik.

Zergatik erabaki duzue aurrekontuak herritarrekin osatzeko ahalegi-na egitea?

Parte hartzearen kultura martxan jarri, bultzatu eta gure egiteko konpromisoa hartu genuen hauteskundeetan. Iaz, aurrekontuen proiektuen aurkezpenean, mota honetako ekimenak jarri genuen martxan, eta aurtun, urrats bat gehiago ematen saiatu gara.

Zein izan da pauso hori?

2013ko proiektua aurkeztu aurretik, aurtengoa nola joan den azaldu genuen. Horrekin batera, inkesta bat zabaldu genuen herritar guztien artean, 2013ko aurrekontuei ekarpenak egin nahi dizkion orok, aukera hori izan dezan.

Nola joan zen batzarra?

Euskarazkoa eta erdarazkoa egin genituen, eta gauzak diren bezala, iazjende gehiago etorri zen. Gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, pixka bat harrituta gelditu ginen, baina dena den, inkesta etxe guztietan banatu dugu. Ekarpinak egiteko epea hilaren 14an amaitzen da. Herritar guztiak animatu nahi ditugu horretara, iritzia ematera besterik ez bada ere; de-seatzen jasoko ditugu.

Zuekin zuzenean hitz egiteko aukera ere egongo da.

Horretarako hiru hitzordu jarri genituen: abenduaren 11, 12a eta 13a. Arratsalde zabalduko dugu jendaurreko arreta zerbitzua, 17:00etatik 20:00etara. Udal ordezkariok bertan egongo gara, eta noski, urte guztian ere, ateak zabalik izango ditu udalak.

Zergatik dira hain garrantzitsuak aurrekontuak?

Instituzio publikoak denonak dira, eta hori azaltzen duen gauzarik nabarmenena, aurrekontuak dira. Zergekin zer egiten den galdetzen duenik bada kalean, instituzioekiko konfiantza handiegirik gabe. Aurrekontuak jendaurrean aurkeztean, biltzen den diru horrekin zer egiten den erakusten duzu. Ordaintzen diren zergek, gero zerbitzu bat izaten dute atzetik, eta garrantzitsua da hori herritarrek jakitea. Niretzat, politikaren gakoetako bat da aurrekontu horiek gardentasuna izatea, eta garbi azaltzea; gure gestioaren lanabes garrantzitsuenetakoak dira.

Parte hartzea, ordea, ez zen nahi bezalakoa izan.

Distantzia luzeko lasterketa bat da hau. Jakin badakigu egungo gizartea beste bide batetik doala, eta gu alderantzizko bidea egin nahian gabiltzala; baina horretan



A. IMAZ

Galder Azkue ▶ Amasa-Villabonako alkatea

Amasa-Villabonako Udala aurrekontu parte hartzaileak aurrera atera nahian dabil; gaur eta bihar, udal ordezkariak, herritarren zalantzak argitzeko egongo dira udaletxean, 17:00etatik aurrera.

«Aurrekontuei ekarpenak egitera animatu nahi ditugu herritarrak»

sinesten dugu, herritarrentzat ona dela iruditzen zaigulako, eta ondorioz, parte hartzea sustatuz jarraituko dugu: herrian banatzen dugun aldizkarian, webgunean... aurrekontuen gaiari garrantzi handia emango diogu.

2013ko aurrekontuek nolako itsura dute?

Udalerrion diru sarrerarik handiena foru funtsetik etortzen da. Aktibitate ekonomikoa jaistean, murriztu egin behar izan dute. Zartakorik handiena 2012an jaso dugula uste dut; hurrengo urtekoak mantendu egingo direlakoan nago, edo pixka bat gehiago jasotzeko moduan izango garela.

Aurreikuspen hori, zertan oinarritzen da?

Gipuzkoako Foru Aldundia egin ari den ahaleginean. Presiopean egon arren, erreforma fiskal ausarta egin du aldundiak; PSE-EEren laguntzarekin, hori ere esan beharra baitago.

Erreforma horrek zein ondorio ekarriko dituela uste duzu?

Inguruko ogasunak goitiki behera doazen une honetan, Gipuzkoakoak mantentzen ari da. Horrek udaloi positiboki eragiten digu.

Herritarren gaineko udal zergekin zer egingo duzue?

Ordenantza fiskalen bidez, etxeen, kotxeen eta abarren gaineko

tasak eta zergak biltzea gure eskumena da. Igoera txiki bat egin behar izan dugu, gastuen kapitulu goraka baitoa gelditu gabe. 2011ko KPIaren igoera proposatu dugu, %2,4. Udalak egingo duen diru bilketan, 56.000 euro suposatzen ditu horrek. Hori gabe ere aterako genituen aurrekontuak, baina azken hiru urte hauetan, milioi t'erdia euro gutxiago jaso dugu, eta BEZa %13 igo dutela kontuan hartuta, zergak eta tasak ezin genituen izozturik mantendu, KPIa %3,5 igotzen ari den honetan. Aurrekontuen balantza, izugarri, gastuen aldera joango litzateke. Ondorioz, gutxiene-

ko hori igo beharrean aurkitu gara. Badakigu zergak igotzeko garaia ez dela, jendea larri baitago, baina murrizketarik ez dugu egin nahi; herriko zerbitzu guztiak mantendu nahi ditugulako.

PSE-EEren zinegotziak, Maria Luisa Arijak, aurrekontuen harira, udala gogor kritikatu du.

Hauteskundeetan gehiengo osoa lortu genuen, eta hasieratik, guk geuk, zalantzan jarri genuen hori. Oposizioak, euren alde bozkatu zuten herritarren alde lan egiteko aukera izan behar zuela pentsatu genuen, eta horretarako, hainbat neurri hartu genituen: bulegoa jarri genien, batzorde guztiak ireki eta maiztasunez deitu ditugu, lehen eskuko informazioa eman diegu gai guztietan... Maria Luisa Arijaren inguruan esan nahi dudana zera da: leialtasun falta azaldu duela. Ate guztiak ireki zaizkio, informazioa eskatu ahala eman zaio...

Zuekin hitz egin al du?

Guzti hau Gipuzkoako PSE-EEren estrategia bat besterik ez dela uste dut. Aldian aldi, komeni zaienean, *El Diario Vasco* erabiltzen dute plataforma moduan; gezurrak esateko, eta zuzenean alkatea erasotzeko. Beraien politikak egiteko modua da, eta errespetatzen dudan arren, izugarriko leialtasun falta iruditzen zait; ez da zilegi, egia ez diren gauza horiekin ateratzea.

Eztabaidari beldur izatea, eta aurrekontuei buruzko ez ohiko bilkura bat atzera botatzea leporatu zizuen.

Oso erraza da noizean behin artikulatu bat prentsara bidaltzea, eta ezer gehiago ez egitea. Aurrekontu batzuei ekarpenak edo zuzenketak egiteko, ordu asko sartu behar dira, lana egin beharra dago, eta hori da errealitatea. Batzorde-etara etortzen direnean, 20 minutu eserita egon eta etxera joaten dira, inolako ekarpenik edo kritikarik egin gabe. Aurrekontuen inguruan, ez ohiko bilkura bat eskatu zuen oposizioak...

Eta aurka bozkatu zenuten.

Ideia, berez, ez zaigu txarra iruditzen, baina argi esan genien ez zitzaigula euren jarrerara koherentea iruditzen; ezertarako parte hartu ez duen oposizio baten erritmoan ez ginelako joango. Gure ustez, bilera irekiak egitea eraginkorragoa zen, herritarrei begira eta parte hartzea bultzatzeko. Urtean zehar ekarpenak egin dituen oposizio bat izango balitz, bilkura egiteko ez litzateke arazorik egongo, baina justu aurkakoa da. Iaz bezala, aurtun ere aurrekontuen proiektua udalbatzaren bilkurara eramango dugu; hila-beteko epea emango diegu nahi dituzten ekarpenak egiteko... espero dugu iaz ez bezala, hilabete-ko epe horretan, aurtun ekarpen bat lantzea, lehengo urtean hori ere ez baitzuten egin. Aurrekari horiekin, zentzurik ba al du ez ohiko bilkura bat deitzeak? Ez dauka zentzurik lana egiten ez duenari protagonismoa emateak.

Alegiako Gaztetxea 25. urteurrena ospatzen ari da hainbat ekitaldirekin. Bere bidea egin du, eta hasierako garaia beste batzuk baziren ere, egun bizirik dagoela erakusten du, gazteek beren beharrak asebetetz.

Ateak irekita jarraitzen du

Imanol Garcia Landa Alegia

Abenduan beti urteurrena ospatzen dute Alegiako Gaztetxean, baina aurtengoan bereziagoa da: 25 urte bete dira tren geltokiko biltegi zaharra okupatu zutenetik. Eta bertan dago oraindik. «Leku berean jarraitzen duen gaztetxe zaharrenetakoa da», esan du Txarli Gesteira bertako kideak. «Urte gehiago dituenak badaude, baina lekuz aldatu izan dira».

Alegian beste gauza asko bezala, Tontokalen sortu zen gaztetxearen txinparta. «Jende guztia hor biltzen zen, eta ikusten zen beharra gazteak leku batean elkartzeko», dio Gesteirak. «Urtebete lehenago, 1986an, Ziklox Garaialde musika taldea sortu zuten herriko gazte batzuk. Hiltegi zaharra hasi ziren erabiltzen, orain dagoen kiroldegiaurreko bulebarrean zegoena, baina eraikina bota egin zuten. Eta pentsatu zuten tren geltokiko biltegi zaharrean sartzea, eta horrela egin zuten 1987ko abenduan». Imanol Aranburu gaztetxeko kideak gaineratu duenez, «gazte asanbladak lokal bat eskatu zuen aurretik udaletxean, baina ez zioten kasurik egin eta eraikina okupatzea pentsatu zuten».


Lehenengo hilabeteak txukuntzen aritu ziren: zaborra atera, margotu, eszenatokia muntatu eta ekitaldiak prestatzen hasi ziren. Gaztetxea oso lotua izan da musikari eta kontzertuei, batez ere aurreneko urteetan.

Okupazioa dela eta, tentsioak bizitu ziren herrian. Sei gazte inputatu egin zituzten, baina azkenean eraikinarekin jabea zen Renfe enpresak atzera bota zuen salaketa eta bertan behera geratu zen epaiketa. «1994an udalak eraikina botatzeko asmoa azaldu zuen, aparkaleku beharra zegoela esanez», dio Gesteirak. Mobilizazioak hasi ziren, eta herriko hainbat elkarte babesa agertu zuten. Itxialdia ere izan zen gaztetxean, eta astebetetz udaletxea ere okupatu zuten; azken egunean eskualde mailako manifestazioa egin zen. «Udala nahiko bakarrik geratu zen», dio Aranburuk, eta Gesteirak gaineratu: «Udala eta gaztetxearen artean hitz egiteko talde bat sortu zen, guraso elkarretik eta herriko kultur talde bideratuta. Posizio kontrajarriak zeuden; pixkana gaia ixten joan zen. Garai hori izan zen gaztetxearen unerik kritikoen».

Udala eta gaztetxearen arteko



Alegiako Gaztetxea, 1988an. Eskuinean, 1989 inguruan egindako mendi irteera bat. HITZA



Ezkerrean, 1993an egindako kontzertu baten kartela; eskuinean, Su Ta Gar taldearen emanaldia 1988an. HITZA

harremana urtetan oso hotza izan zen, eta horren erakusle dira karmenetan antolatzen hasi ziren festa alternatiboak. «Ziklox Garaialde taldeak txosna jarri zuen musika materiala erosi ahal izateko bi urtez bulebarrean», dio Gesteirak. «Gero, taldea desegiterakoan, gaztetxeak hartu zuen toki horren lekukoa eta festa guinea izaten jarraitu zuen». Aranburuk azaldu duenez, «lehen tira birak zeuden udalaren eta gaztetxearen artean eta bakoitzak bere aldetik jotzen zuen». Azken urteetan bestelakoa da harremana eta, esaterako, festa prestatzerakoan koordinatu egiten dira udala eta gaztetxea, eta egun bi egitarauak osagarriak dira.

«Herriko gune garrantzitsua»
Gaztetxeak mende laurdenean irauten ez da urte kopuru txikia Alegiaren tamainako herri baten zatia. Alegia gaztetxearen zirkuituan barruan zegoen, eta ia asteburuko kontzertu bat izaten zen. «Horrelako herri baterako

eskaintza hori izatea ez da erraza», dio Aranburuk. «Kartelen bila aritu gara eta beti zerbait zegoen. Talde ezagun asko etortzen ziren». Horrek guztiak eragina izan zuela dio Aranburuk eta herrikoek dinamizatzen zuten, beti izaten zen mugimendua. «Bestalde, herri txiki batean belaualdiak ezberdinak izaten dira, beraz, posible da ahulagoa egotea zenbait garaitan», gaineratu du Aranburuk. «Herriko gune garrantzitsua da, eta antolatzen diren gauzetan jendeak parte hartzen duenez, horrek animatu egiten du jarraitzea».

Gaztetxeak autogestionatua izaten jarraitzen duela nabarmendu dute bi kidek. «Egun bigarren solairu bat egiten ari gara gaztetxean. Hori dena pixkana ordaindu dugu. Ez dugu inolako laguntzarik jasotzen».

Kontzertuen emaria asko jaitsi da. Egun urteurreneko ospakizunetan eta festetan antolatzen dira kontzertuak. «Garaia aldatu dira», dio Gesteirak. «Lehen edo-

zein talde etortzen zen eta jendea tabernetatik gaztetxera joaten zen. Orain izena duen talde bat etortzen da, edo bestela jendea ez da joaten».

Horrez gain, lehen musika ekipoa bazegoen, baina orain alokatu egin behar dute kontzertu baterako eta horrek kostu handia suposatzen du. «Tarteka egitea posible da, baina asteburuko egongo bagenu, zuloa egingo genuke».

Alegiako Gaztetxeak autogestionatua izaten jarraitzen duela nabarmendu dute

Kontzertuak ez ditugu dirua ateratzeko antolatzen, baina behintzat gasturik ez sortzea nahi izaten dugu», esan du Aranburuk. Lehen taldeak afariaren truke jotzen zutela ekarri du gogora Gesteirak, eta egun beste baldintza batzuk eskatzen dituztela. «Egun gaztetxetik ere lehen baino baldintza hobeagoa eskaintzen da

Gaztetxearen Eguna ospatuko dute larunbat honetan

➔ Gaztetxearen 25. urteurreneko egitarauan larunbata, hilak 15, izango da egun nagusia, Gaztetxearen Eguna izendatu dutena. Aurretik, bihar, hilak 13, Madagaskarri buruzko diapositibak ikusteko aukera izango da, 20:00etan, Txuspiren eskutik. Etzi, hilak 14, ping-pong txapelketa egingo dute, 22:30ean hasita.

akustika aldetik, eta etortzen direnak gustura egon daitezen saiatzen gara», gaineratu du.

Kontzertuak antolatzeaz gain, beste hainbeste egitasmo egin dituzte gaztetxean. Esaterako, ikastaroak: serigrafia, gitarra, perkusioa, txalaparta, egur taila... Kirolaren aldetik, besteak beste gaztetxeko kideek parte hartzen duten Mendi Asanbladak hilerro mendi irteera antolatzen du. Futbol eta saskibaloitxapelketak ere antolatu izan dituzte. Horrez gain, asteazkeneko zine kluba egiten dute, eta hitzaldiak ere egin dituzte.

Gaztetxearen dinamika ez da hasierako bera. «Sortu zenean krisi garaia zen, baina beste giro bat bizi zen, beste indar bat zegoen. Orain gutxiago inplikatu da jendea, orokorrean nahiago du zerbait antolatu baino, besteek antolatu eta gero joatea. Orain, krisi garaia bizitzen ari gara, ea gazte jendea gehiago mugitzen den», dio Gesteirak. Aranburuk gaineratu duenez, gaztetxearen parte izateak ikasteko aukera ematen du: «Gauzak antolatzeko mugitu egin behar zara eta horrela ikasi egiten duzu. Orain 25 urte gaztetxea sortu zen behar batzuk zeudelako, eta gaur egun ere martxan jarraitzen dubeharrek badaudelako. Nahi duenarentzat atea irekita dago».

Irurtzun eta bere inguruak ezagutuko dituzte, igandean

Aizkardi mendi taldeak 21 kilometro inguruko ibilbidea antolatu du; bihar da izena emateko azken eguna

E. Maiz Amasa-Villabona

Aizkardi mendi taldeak irteera antolatu du, eta kasu honetan, Nafarroara joango dira, eta Irurtzun herria eta bere inguruak zeharkatuko dituzte. Hilaren 16an, igandean izango da.

Ibilbidearen iraupena sei ordu ingurukoa izango da, eta 21 kilometroko ibilbidea prestatu dute. Irurtzun herritik Etxeberri herri-

ra joango dira, eta bertatik Larrazpil mendia (1.066 metro) igoiko dute Bi Ahizpetako tontor baten ondorekin pasaz. Iruaundira (1.064 metro) jarraituko dute, eta beheko bidea hartuko dute Golaratzetik igaroz. Ondoren, Ergatik (1.094 metro) pasako dira irteerak puntura itzultzeko.

Mendi irteerara joan nahi dutenek izena eman beharko dute. Horretarako, 649 717 182 telefono zenbakira deitu beharko dute edota 20:00etatik 22:00etara bitartean Aizkardi bulegoetan bertan apuntatzeko aukera izango da. Izena emateko azken eguna bihar da. Irteera, egunean bertan, 07:30ean, izango da Olaederra kiroldegitik.

→ Laburrak

'Barrura begiratzeko leihoak', etzi,

IKAZTEGIETA > Ikaztegieta Kulturaldia azken hondarrera iristen ari da, eta etzi, hilaren 14ean, *Barrura begiratzeko leihoak* filma ikusteko aukera izango dute herriarrek. 22:00etan emango zaio hasiera, eta udaletxe areto nagusian izango da.

Guraso elkartearen eskutik, zine emanaldia igandean

ABALTZISKETA > Txalburu eskolako guraso elkarteak antolatuta, hilaren 16an, igandean, zine emanaldia izango da, Abaltzisketan. 16:30ean emango diote hasiera eta bat bat haurrei eta gazteei zuzendutako filma eskainiko dute. Oraingoan, *Como entrenar a tu dragon* ikusteko aukera izango dute herriko txikiak, Goibegin.

Maite Frankoren ipuinak, gaur, liburutegian

ALEGIA > Gaur, asteazkena, Maite Franko ipuin kontalaria izango da Alegiako liburutegian. Kultur ekitaldien barruan antolatutako emanaldia da, eta 17:00etatik aurrera ipuinez gozatzeko aukera izango dute.

'Olenzero: Mitoaren jatorri eta mutazioa', hitzaldia

ASTEASUN > Gaur, hilak 12, *Olenzero: Mitoaren jatorri eta mutazioa* hitzaldia izango da, Asteasun. Hizlaria Fernando Rojo Tolosa izango da, eta Asteasuko udaletxe aretoan egingo dute. 19:30ean hasiko da.

Gabonetan kantari ateratzeko bilera, bihar

LARRAUL > Larraulen Gabonetan kantari ateratzeko eguna antolatzeko bilera antolatu dute. Herriar guztiei dei egingo diete, eta bihar 18:30ean izango da Katilutxulo elkartean.

Ibarrako eta Tolosako merkatariek Gabonetako kanpainak martxan dituzte

Bi herrietako merkatariek eta ostalariek elkarteak hasi dira jada egingo dituzten zozketetako txartelak banatzen

R. Calvo-E. Maiz Ibarra / Tolosa

Ibarrako eta Tolosako merkatariek Gabonetako kanpainak aurkeztu dituzte. Izan ere, Eguberriak oso garrantzitsuak dira beraienentzat, erosketa asko egingo baitira egun hauetan, eta horregatik, eta bi herri bizi gehiago eman asmoz, ekitaldi ugari antolatu dituzte datozen asteetarako.

Tolosan, Tolosa&Co merkatarien elkarteak, dagoeneko eman dio hasiera Gabonetako kanpainari. Juanjo Ruiz eta Isabel Mandiola elkarteak kideek azaldu zuten, aurtan 1.000 euroko hiru txartel zozkatuko dituzte. Tolosako saltokietan erosketak egingo dituzten bezeroen artean. Zozketa 2013ko urtarrilaren 8an egingo da, eta zenbaki sarritua dutenek, 1.000 euroak Tolosa&Co elkarteak saltokietan gastatzeko aukera izango dute.

Txarteletz gain, Gabonetako umeen parkea ere jarriko dute. Goizez eta arratsalde, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Hilaren 26tik 29ra egongo da, eta doan izango da. Musika ere, aurtan ere, kaleak girotu eta alaituko dituzte, abenduaren 12tik urtarrilaren 5era, 18:00etatik 20:00etara.

Tolosa merkataritza hiria izatea nahi dute, eta horrela izateko lanean ari direla nabarmendu zuten. Aurtan, gainera, Tolosako kaleetako Eguberrietako argiak pizteko aukeratu izan da Tolosa&Co elkarteak.

Elkarteak bere presentzia indartu nahi izan du Gabon hauean, eta horretarako, telebista, aldizkari eta egunkarietan hainbat motako iragarkiak jarri dituzte



Tolosa&Co-ko Mandiola eta Ruiz, kanpainaren berri ematen. E. MAIZ

eta etxeko etxe banatzeko aldirakia ere ateratu dute. Horiek horrela, herriarrek herrian bertan erosketak egitera animatu nahi dituzte, eta kanpotarrei ere Tolosara gerturatzeko deia egin diete.

Ibarrako kanpaina

Ibarrako Merkatariek eta Ostalariek Elkarteak ere atzo arratsaldean hasi zuen kanpaina elkarteak kide diren saltokietan erosketak egingo dituztenen artean zozketa txartelak banatuz. Urtarrilaren 7a arte banatuko dituzte txartelak, eta zozketa urtarrilaren 8an egingo dute. 150 euroko lau opari txartel irabazi ahal izango dira eta merkatariek elkarteak kide diren saltokietan erabili ahal izango dira 2013ko apirilaren 13a baino lehen.

Era berean, herria girotzeko helburuz, ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan musika izango da kalean. Dultzainero, soinu jole eta abar gonbidatu dituzte eta jotzen duten bitartean aipatu zozketan parte hartzeko txartelak banatuko dituzte.

Merkatariek haurrak ere izan dituzte gogoan, eta eurentzako ekitaldi betetako arratsalde bat prestatu dute. Abenduaren 28an izango da, eta 17:30ean hasiko dira ekitaldiak kultur etxean izango den ipuin kontaketa salo

batekin. Ondoren, 19:00ak arte, jokoak izango dituzte, eta hauek bukatuta, eta eguraldiak lagun-tzen badu, kalejira egingo dute.

Merkatarien elkarteak Ibarran lehen aldiz egingo duten San Silvestre lasterketan ere parte hartuko du parte hartzaile guztien artean opariak zozkatuz.

Apaiagarriek dagokien, bazkide diren saltokietako erakusleihoetan Ibarrako piperrak zintzilikatuak dituzten zuhaitz adarrak jarriko dituzte; «adarrak Eguberrietako pinua bailiran jarriko ditugu eta zintzilik, izarren moduan, piperrak jarriko ditugu birziklatutako elementuak erabiliz» azaldu zuen Agustín Aduriz merkatarien teknikariak.

Apaiagarriak

Merkatariek eta Ostalariek Elkarteak antolatutako ekitaldiekin batera, Ibarran izango da Gabonak gertu daudela iragartzen duen beste elementurik ere: apaiagarriak eta argiak. Argiak abenduaren 21etik urtarrilak 7ra arte piztuko dituzte Euskal Herria kalean, San Inazio auzoan eta plazan, energia aurrezteko eta argi-kutsadura murrizteko helburuz. Herriko gainontzeko tokietan aldiz, Uzturpe ikastolako gazteek birziklatuz egindako apaiagarriak jarriko dituzte.

Egin HITZAren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso Mahaia baserriko produktuez osatutako saski ederra...



...opari



harremanetarako: 902 82 02 01 / harpidetza@hitza.info

eta...

... HITZAren harpidedunen artean

PORTUGALEN egiteko bi pertsonentzako zirkuitua zozkatuko dugu

hitza®

Antxon Urrestarazu ◉ Zugasti arropa dendako jabea

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Ibarako Zugasti denda saritu du; aitona hasi zen, alabak jarraitu, eta egun biloba ari da lanean.

«Egindako lanaren aitorpen modukoa da, baina herriarena ere bada saria»

Iñigo Terradillos Ibarra

Lau sari ematen ditu Gipuzkoako Merkataritza Ganberak urtero, eta horietako bat, Merkataritza Jarduerarena, eskualdean banatu dute, Ibarra, hain zuzen. Zugasti arropa dendako Antxon Urrestarazuk jaso du saria. Pozik dago, eta orain arte bezala lanean jarraitzeko indarra ematen dutela horrelakoek azaldu du.

Nolatan iritsi zaizua saria?

Tolosaldea Garatzeneko merkataritza arduradunak animatu ninduen hautagaitza aurkeztera. Egitea erabaki nuen, eta gure komertzioa aurkeztu nuen hautagai moduan, bere historia azalduz, hau da, negozioa noiz hasitakoa den, nola, zein eskutatik igaroden eta abar. 30 urtetik gora lanean diharduten merkatarien artean banatzen dute saria.

Zer jaso duzue sari moduan?

Diploma bat eta garaikur bat. Gu oso pozik gaude, saria egindako lanaren aitorpen modukoa baita. Gainera, jende ugari aurkezten du hautagaitza, eta ez genuen espero. Epaimahaiko kide guztien adostasunarekin eman zigutela saria esan ziguten, beraz, poztekoa da. Bestalde, kanpora begira ere onuragarriak izaten dira horrelako sariak herritarrek aintzat hartzen dituztelako.

Noiz hasi zen zure dendaren historia?

Aitona hasi zen negozioarekin, 36ko gerra bukatu ostean. Bizar-tegi batekin hasi zen. 40ko hamarkadaren bukaera aldera izan zen hori.

Ez zen garai hartan Ibarra negozio askorik izango.

Ez. Beste pare bat ere egongo ziren, eta horrez gain, tabernak. Gero, nere amak aitonaarekin hitz egin zuen, eta herrian hutsune bat zegoela ikusita, drogeria zerbitzua ematea erabaki zuten. Ondoren, drogeria eta lurrin-denda zerbitzuak ere eman zituen. Horrela jarraitu zuten, aitona bi zarategiarekin, eta amak drogeria lurrin-dendarekin, guztia lokal berean. Amak 45 urte inguru egin zituen drogeriarekin.

Eta, gero zu hasi zinen.

Ni 17 urterekin hasi nintzen berarekin lanean, dendan. 46 urte ditut, beraz, ia 30 urte daramatzat salmentan.

Baina, amaren eta aitonaaren dendako zerbitzuak ez ditu, gauregun.

Duela 12 urte, beste bide bati ekitea erabaki nuen, oso zail baitzegoen merkaturia, eta pixkanaka arropa sartzen hasi nintzen. Gaur egun, moda eta osagarrien denda da. Baina, oraindik ere, bada dendara sartu eta drogeriako gauza ere bat eskatzen duenik.

Hiru belaunaldiren lanaren saria izanda.

Guk jaso dugu sari hori, baina herriaren saria ere bada. Izan ere,



Antxon Urrestarazu, Ramoni ama eta Jexux Peñagarikano Ibarako alkatea, sari banaketa ekitaldian. HITZA

guk egin dugu lan urte horietan guztietan, baina herritarren erantzunik gabe ez litzateke posible izango. Dendara gauzak erostera ez bada inor sartzen ezin du iraun hainbeste urtetan. Horregatik, oparia, hein handi batean herriarena da.

Sari honek aurrera jarraitzeko indarra emango du.

Bai. Urte mordoa daramagu borrokatzen, eta gure asmoa lanean jarraitzea da. Gaur egun, arropa dendaz gain, banatzaile enpresa bat ere badugu, eta beste dendetara ere saltzen dugu, Euskal Herri mailan.

Sariaren harira zer bait berezia egin asmo al duzue?

Erakusleio berezia egiteko asmoa dugu orain. Gure dendaren ibilbidea irudikatu nahi dugu. Aitonaren motorra izandakoa jarriko dugu, amaren produktu batzuk, nireak... herritarrek ikus eta ezagutu dezaten.

Merkataritzak zer garrantzi du herri batentzat?

Merkataritzarik ez badago, edo itxita badago, herriak tristeak dira. Duela urtebete inguru hasi ginen Ibarako merkataritza taldea bultzatzen. Herritarrek herrian bertan erosketak egitera animatu nahi ditugu. Herriari bizia ematea da gure helburua.

Nabari al duzue dendariak elkartu eta ekimenak elkarrekin antolatzen hasi zirenetetik?

Bai. Nire aldetik bai, eta beste dendariak esaten dutenaren arabera ere, orokorrean nabari da. Kontsumo aldetik ezezik, kalean beste giro bat nabari da. Gure helburua herrian bertan kontsumitzea da, dirua herrian gertatzea, aberastasuna bertan gertatzea. *Ibarra bizi eta Ibarra erosi*, hori da hurrengo kanpainarako pentsatua dugun leloa, gure helburua argi erakusten duena. Udalarekin elkarlanean ari gara, eta babes hori ere oso garrantzitsua da.

Gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean zurea bezalako denda batekin aurrera egiteko zein da gakoa?

Egokitzten joan behar duzu, bide berriak jorratzen. Gure kasuan, dendarekin batera, beste bide bat topatu genuen, banatzaile izatearena, alegia. Gure etxe propioa egin dugu, sare sozialak erabiltzen ditugu, online denda bat prestatua dugu... Eserita gertatzen ez gaude. Formula berriak aurkitu behar dira, bestela ez dago negozioa aurrera ateratzerik. Bestalde, biziraupena eta elkarlana ere badira gaur egungo egoeraren gakoak, eta merkatariek elkartzeak hori bilatzen du.

Garazi Esnaola eta Garazi Eigurenekin kantaldia, Lizartzan

I. Terradillos Lizartza

Lizartzako Udaleko kultura batzordeak kantaldia antolatu du larunbat honetarako, hilaren 15erako. Garazi Esnaola eta Garazi Eiguren abeslariak ariko dira kantari kultur gunean, 22:00etan hasita.

Kultur batzordetik adierazi dutenez, euskal kantu tradizionalak abestuko dituzte, eta baita gaur egungo kantuak ere. Emanaldi atsegin honetara joateko gonbita luzatu diete herritar orori.

24 etxebizitza egiteko proiektua dute Areson, herriaren sarreran

I. Terradillos Areso

Aresoko herriaren sarreran, Patxikunea etxearen parean, 24 etxebizitza egiteko proiektua du Aresoko Udalak. Bada, martxan jarri aurretik, etxebizitza horietako bat eskuratzeko interesaturik dauden pertsona guztien zerrenda osatu behar du. Abenduaren 21a bitarte du zerrenda osatzeko epea.

Udaletik azaldu dutenez, zerrenda hori informatiboa da, eta ez dakar berarekin etxebizitza bat erosteko betebeharra. «Herriaren dagoen eskaria era errealean islatzea du xede, Nafarroako Gobernuaren aurrean, herriaren dagoen beharra era argian azaldu ahal izateko», adierazi dute.

Beraz, etxebizitza horietan interesa izan dezakeen orok Aresoko udaletxera jo beharko du, eta han izena eman.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarritako
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



12°
8°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	14°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduana, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Villabona-Zizurkil



ITSAS MUNDUA GERTUTIK IKUSTEKO AUKERA

Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastola-ko LH2ko ikasleak Pasaian izan dira. Batetik, Ma-ter itsasontzi museo bisitatu zuten (irudian) eta bertan, itsasontzi bat goitik behera ezagutzeko

aukera izan zuten eta baita arratzari zein itsasoari buruzko gauza asko ere. Bestetik, San Pedroko arraunlarien gimnasioa ezagutzeko aukera izan zuten. HITZA

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurak**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
Gauekoa: Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka GALURKO ESKAINTZA

**Dastatzeko menu bikaina
Bilboko erdialdean**

ASADOR ZURIA
San Yago 100, 1.
48901 (Bilbo)
Tel: 94424 95 00
www.asadorzurria.com

22€

www.mauka.eu **berria**

Euskal Selektzioa - Bolivia
futbol partidarako

**sarrerak
merkeago
3=2**

**Bi sarrera
erosi,
eta hirugarrena
DOAN!**

Sartu www.mauka.eu sartu
eta erosi zure sarrera bukatu baino lehen!

Mauka **berria**

berria